

«Euskaingintzarekin esfortzu bat egin behar dugu bidea adosteko»

Markel Olano • Gipuzkoako ahaldu nagusia

Bidegurutzearen ideari heldu dio Olanok: «Normalizazioaren estrategiak mugak azaldu ditu, eta gainditu beharrak dauzkagu». EAJri begira ere jarri da: «Besteek ere egin behar dute esfortzua, baina guk ere bai».

Garikoitz Gokioetxea Donostia

Gipuzkoan «guzak aurrera doazen sententzietan» ari da lanean Markel Olano ahaldu nagusia (Beasain, Gipuzkoa, 1965). «Jarri ditugun eronka gehienetan aurrera egiten ari gara». Bigarren aldiz dago ahaldu nagusia, eta aurreko agintaldiaz autokritika egin du. Bilduren jardunari dagokionez, uste du kudeaketa ekonomikoan eta hizkuntza politikan egoki aritu zirela, baina ohartarazi du harremanak kaskartuta daudela. **Bi alderdiko gobernu batean zaude. Diputatu kontseilu luzeagoak dira? Entretengarriagoak?** Oso bilkura formalak izaten dira. Koordinazio guneak dauzkagu; asteartean egiten dugu, kontseilua baino lehen. Jana egosita daukagu kontseilura iritsi aurretik. Edozein kasutan, beti sortzen dira eztabaidak eta desadostasunak, bai alderdian, eta are gehiago bi proiektu diferentetan. Ezarri ditugu koordinaziorako tresnak, eta oraingoz emaitza onak ditugu. **Hauteskundeen aurretik zure aurreikuspenetan zegoen Denis Itxasoren gobernuakide izatea?** Hauteskundeak zurrumbilao dira; ez duzu edukitzen ondorenerako ideia garbirik. Garbi neukan, tamalez, ezker abertzalearekin geneukan enfrontamenduagatik, oso zaila izango zela gobernu osoa batzea Bildurekin. Bai eurek irabazita, bai guk irabazita. Horrek eragileak kentzen dizkizu mahaitik. **Nolako herentzia aurkitu duzu?** 2007-2011n, krisia etorri zenean, ziaboga eman behar izan genuen kontu ekonomikoetan: zuhurtzia izan zen nagusi. Horrek jarraitu egin zuen, eta hala egin beharko du gurean ere. Alde ekonomikoan irakurketa ona izan zen, baina beste zenbait kontutan, ez. Hori konpontzen ari gara. Edozein kasutan, ez da gure lan bakarra: anbizioz jokatzeko asmoa daukagu. **Zer egin zuen ondo Bilduk?** Ogasuneko arduradunek zuhurtziaz jokatu zuten. Hori ona izan

zen. Euskararen erabilera urrats berriak egin zituzten, eta jarraituko dugu, ikuspegi propio batetik. Hori bat dator euskararen normalizazioaren inguruko estrategia bat partekatzeke agertoki batekin. Logika antzekoak ditugu. Ez berdinak, baina aurrera elkarrekin egiteko aukera ikusten dut. **2007-2011ko jardunaz autokritika egin duzu. Zer buruz zehazki?** Ez genuen jakin etxeko langileekin bat egiten. Aldundiak 1.800 langiletik gora dauzka, eta helburua da ardatz guztietan bat egitea. Autokritika garbia da. Zer gehiago? Anbizio handiagok jokatu behar dugu jendearekin eta gizartearekin bat egiten eta komunikazioa hobetzen. Oinarri berri bat ezarri nahi dugu guzak egiteko moduan. Garrantzitsua da zer egiten dugun, baina garrahtzitasuagoa da nola egiten dugun. Asko dugu ikasteko eta hobetzeko. **2007an izan nahi zenuen ahaldu nagusia, edo behartua izan zen?** Argi dago zirkuntzietatik behartu nindutela. Ez dut planteatzen konpromiso politikoa gogoan arabera. Ez nuen planteamendu individual bat egin; kolektiboki tokatzen zen apustu bat egitea. Garai hartan oso egoera pertsonal gogorrek izan nituen -gurasoak hil zitzaizkidan-, eta, horri gehituta ardura garrantzitsu bati aurre egin behar izana, horrek pertsonalki une oso gogorretan murgildu ninduen. Orain beste egoera batean nago. Distantziarekin ikusita, oso une gogorrek izan ziren. **Azkar esan zenuen baietz?** Lehenengoan ez nuen baieztakorik eman. Prozesu bat egon zen. **Gure Esku Dago-ri emandako laguntza bertan behera utzi du auzitegiak. Helegitea jartzea babestu dute PSEko diputatuak?** Ez nitzuke publiko egin nahi barneko deliberazioak. Garbi dago EAJk eta PSEk ikuspegi diferentek ditugula. Urkijoren helegite guztiek eragiten diete diputazioaren eskumenei. Egon zaitezke ados laguntza batekin edo bestea-

rekin, baina estatuaren ikuspegiatik eraso egiten bazaie zure eskumenei, irmo defendatu behar da. Horretan ari gara. Beste gauza bat da ikuspegi bakarra daukagun alde guztietan. Hori ez da horrela. **Goierriin galdetuta antolatzen ari dira. Nola ari zara ikusten?** Ez dut gertutik jarraitzen. Garbi dut edozein urrats egiteko unean oso garrantzitsua izango litzatekeela abertzaletasunaren inguruan sentsibilitate diferentean babesa edukitzea. Ez dut eskatzen alderdi politikoen OK-a, baina bai aurretik egotea elkarlan bat eta sentsibilitate diferentean arte-



EAJn euskararekin konpromiso berezia duen kolektiboak —ni hori nago— ahalgindatu behar du alderdi osoa implikatzeko»

«Abertzaleen arteko harremanetan diplomazia da nagusi. 'Kaixo' eta 'agur'. Konfiantza izpirik gabe»

ko oreka bat. Espero dut hortik jotzea. Benetan kontu hauek aurrera egin dezaten, ezinbestekoa da, Katalunian bezala, gizarte ikuspegitik bateratasun bat, gutxienez oinarriko adostasun bat lortzea. **Gure Esku Dago-ren ekitaldietan parte hartzen jarraituko duzu? Tentsioa sor liteke gobernuan?** Badaukat ikuspegi instituzionala, eta alde horretatik instituzionalki jokatuko dut. Gero badaukatu nire ikuspegi partikularra eta pribatua. Bateria garriak dira. Guzak ongi azalduz gero, ez dakit zergatik norberak ez duen eduki behar bere esparru propioa zenbait ekimenekin adostasuna adierazteko. Ez nuke neure burua politikoki zikiratuko. Markel Olanok mantenduko du koherentzia beré ideekin. Ardura instituzional batean hori zaindu beharra dago, baina ez alde batera utzita norberak daukan ideologia eta printzipioak.

EH Bildurekin zer erlazio duzu? Harreman pertsonalak erosoak ez direla ere entzun izan dituzte...

Ikuspegi pertsonaletik abertzaleen artean harremanak diplomazia hutsezkoak badira, ez goaz ondo. Diplomazia da nagusi. «Kaixo» eta «agur». Konfiantza izpirik gabe. Ikuspegi politikotik, ez zaio errepeturik gure proiektu politikoiari. Horrek ondorio latzak ditu, batik batik elkarrekin bide bat urratzeko. **Udal legea adostu duzue bi taldeek. Gipuzkoa salbuespena da?**

Salbuespen garrantzitsua. Arrazoi bat du: abertzaletasunaren inguruko lehia. Gure interpretazioa da ez direla zilegi ezker abertzaleak guri irabazteko hartu dituen tresnak. Zubi asko puskatu dituzte. Berreraikitzeak denbora asko eskatuko digu. **Gatazka luzea dator?**

Legealdi honetan alternatiba handirik ez dut ikusten etena gainditzeko. Besteak beste, ez dudalako ezker abertzalean jarri aldaketarik ikusten. Nire asmoa ez da atzera

begira egotea. Beste asmo batzuk ditut, eta aurrera egingo dut. Egoera bere horretan dago, tamalez.

EAJko inork proposatu dizu zaborrak Zabalgabira eramatea? Proposamen hori ez dago mahai gainean. Gaia ez dago alderdien mailan; arlo instituzionalean dago. Alde instituzionaletik ez daukagu proposamenik. Gainera, hipokrisia handia litzateke guk ez edukitzea gaitasunik. Ingurumen eta ekonomia kostuak litzuke.

Erraustegi alboko herriek konpentsazioa eduki behar dute?

Joko horretan sartuko bagina, onartuko genuke erraustegiak ondorio txarrak dituela. Ez da egia. Hori esaten dutenek gero frogatzeko orduan arazo izugarriak dituzte. Askotan onartzen ditugu lantegi batzuk ingurumen ondorioak sortzen dituztenak, eta ez dugu arazorik. Errauste plantarain iruzur egiten zaio gizarteari.

Lasarte-Orian, EAJk aipatu du herrian argindarra doan izatea...

Azpiegiturak ondoan edukitzeak tentsioak sortzen ditu. Ardura bakoitzak ikusi beharko du nola kudeatzen dituen kontratsan eta tentsio horiek. Nik ez dut konpentsazio beharrik ikusten, eragin txarrik ez dudalako ikusten.

Enpresariak gusturago daude orain aurreko taldearekin baino?

Nahi nuke enpresak egotea gusturago. Gure helburua da Gipuzkoako enpresa egitura eta industriak indartzea. Kampainan Bildukoekin eduki genuen debate nagusia hori izan zen —baita Podemosekin ere—. Ongizate egoerak oinarri ekonomiko sendo bat behar du. Askotan, ikuspegi ekonomiko alde batera uzten da, eta horrek ondorioak ditu, eronkak ez direlako erakunde babesarekin egiten. Nahi nuke enpresak —langileek eta enpresariak— pertzepzioa edukitzea erakundeak babesa eman diela.

Enpresen ihesik gertatu da?


Arrisku handia egon da ziurrenik. Beste gauza bat da erabaki horiek denbora behar dutela, ez direla bat-bat hartzen. Prozesu horiek indartzeko arriskua zegoen. Hartu ditugu erabakiak hori eteteko.

Rafa Nadalek egoitza fiskala Donostian izatea seinale ona da?

Esan nahi du erkidegoko fiskaltateak onura batzuk dauzkalak. Onura horiek mesede egiten diote aktibitate ekonomikoari. Egon daitezke kasu jakin batzuk onura horiek erabiltzen dituztenak beste erabilera batzuetarako. Horiek kontrolatu egin behar dira. Erabilera kaskarrak ez du esan nahi sistemara oso irauli behar denik. Sistema hori iraultzea oso erraza da. Kontua da alternatibarik badagone eta zer emaitza dauzkan.

Bidegi auzian deklaratu duzu?

Ez. Ez digute hots egin. Urrats oso garrantzitsua egin da: teknarietxosten bat egin dute. Bigarren kereilari oinarri eman zion txostenak datuak apropos manipulatuta zituzten. Lege aldetik larria da; politikoki, izugarri larria.



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Bigarren buelta etor daiteke?

Lehen kereilari buruzko txostena bidean da. Epaileen esku utziko dugu. Ikusiko dugu. Gure tesiak nagusitzen badira, uste dut bigarren buelta bat etorriko dela. Galdera da zein ondorio politiko dituen nahita datuak manipulatzek.

Bigarren bueltak ere ez luke launduko zubiak berregiteko...

Ikusiko dugu nola kudeatzen dugun. Gakoa da epaileek zer erabakitzen duten. Orain ez da garaia kontsiderazio horiek egiteko.

Berdintasun araua onartu zeniaz, aho batez. Diru konpromiso batzuk zituen. Beteko dituzue?

Gure irakurketa egingo dugu. Zergatik gara gizarte aurreratua alde sozialetan edo ekonomikoetan, eta gizon eta emakumeen arteko kontuetan ez ditugu helburu bezala hartzen herrialde aurreratuena? Ez bakarrik sentsibilitatea, baizik eta egituraketa soziala, berdintasuna errazten duena. Helburu horiek ipinita, urratsak zentzu horretan joango dira.

Diru konpromisoa beteko da?

Ez dut aurrekusten diru aldaketa handirik. Erabileraren inguruan gure irakurketa egingo dugu.

Alardearen gaia konpontzeko, zer asmo dauka diputazioak?



'Bidegi auzian' gure tesiak nagusitzen badira, uste dut bigarren buelta bat etorriko dela»

«Ez dakit zergatik norberak ez duen eduki behar bere esparri propioa zenbait ekimenekin adostasuna adierazteko»

Irunen eta Hondarribian gizarte liskar garrantzitsu bat dago. Konpontzeko eragile aktibo izan nahi luke aldundiak. Oso ikuspegi diferenteak daude, muturrean daude. Nahi genuke esfortzu bat egin ikuspegiak bateratzen joateko eta konponbidea lortzeko guztien artean. Sentsibilitate eta ikuspegi guztiak errespetatuz, baina ahailegin bat eginez liskarrak gainditzeko. Gizarte osoak nahi du hori. **Hizkuntza politikan aldaketak egin dituzue: zuzendaritzaren izena aldatu, eta euskalgintzan bide luzea duen pertsona bat izendatu duzue, Mikel Irizar. Zure apustu pertsonala ere bada?**

Hala da. Nirea ere bada. Politikan sartzen garenean, norberak du bere motorra: nireak hizkuntzaren normalizazioa eta euskal kultura dira. Ez dut neure burua abertzaleztat jotzen ez badaukat agenda finko bat euskararen nor-

malizazioan. Ez nintzateke neure buruarekin koherente izango, eta ez nioke ardurari eutsiko. Bidegurutzean gaude. Normalizazioaren estratégiak bere mugak azaldu ditu, eta gainditu beharrak dauzkagu. Kontsentsu zabalak behar ditugu, eta normalizazioa liskar politikotik atera. Anbizioz jokatzeko erabakia hartu behar dugu. Badaukat sentsazioa apustu berriak egiterakoan laborategi puntu bat eduki dezakeela Gipuzkoak. Esperantza handia dut bide egokia hartuko dugula: euskara behar duen tokian izango duen gizarte baterantz, eta ez Irlandara.

Abadia sarietan EAJri begiratu zenion, bidegurutzearena «barnertzeko» eskatuz. Azal ezazu. Liskar politikoa aipatzen denean, norberak mahai gainean jarri behar du bere konpromisoa euskara horretarako ez erabiltzeko. Kontua ez da besteei eskatzea: zuk ere konpromisoa azaldu behar duzu. Horrekin batera, anbizioz jokatzeko determinazioa etxe barruan ere landu behar da. EAJn euskarari buruz ikuspegi aurreratuagoa edo konpromiso berezia duen kolektiboak –ni hor jartzen naiz– ahailegin bat egin behar du alderdi osoa inplikatzeko. Besteei ere egin behar dute esfortzua, baina guk ere bai.

Euskalgintzarekiko lotura aipatu duzu. Bizkar emanda egon dira?

Ez. Konfiantza behar adinakoa ez da egon. Arriskua egon da agenda paraleloak egoteko, eta bateratu egin behar ditugu. Esfortzua egin behar du gu bidea adosteko eta bidea elkarrekin lantzeko. **Euskalgintzak zer rol?**

Batetik, ezagutza dago. Guztioi falta zaigu argitzea zein den bidea. Gerta daitezkeen liskar politikoak gainditzeko behar dugu gune autonomo bat Euskal Herrian, euskararen normalizazioari lehentasuna emango dion gune bat. Akui-lana egin behar du, pizgarri lana, presioa zentzu onean. Esfortzua egin behar dituzunean, hitz politikak ez dira nahikoa; urratsak exijitu behar dira. Hor akui-lana oso ondo etorriko zaigu guztioi.

Nolako egitura autonomoa? Ez dut ikusten horrenbeste konfigurazio formal bat. Pixkanaka ari da osatzen jende multzo bat. Bakoitzak dauka bere kokaleku profesional edo politikoa, eta espazio horretan lehentasun nagusia ematen zaio euskararen normalizazio prozesuari. Geroz eta jende gehiago ikusten dut espazio horretan. Eta jende hori ez da inorekin ezkontzen. Hori oso ona da.